

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

R 21/2011 ebazpena

3/2009 espedientea

Gasteizen, 2011ko irailaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria) eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (kideak) kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Estatuko Administrazioaren arteko eskumen auzi negatiboari buruzkoa, (ENTITATEA 1), S.A. (IFK: A95339172) entitateak erreklamaturako 2007ko ekitaldiko BEZa itzultzeko administrazio bietatik eskumena nork duenaren ingurukoa; Arbitraje Batzordearen aurrean 3/2009 espediente zenbakiarekin planteatu da.

I. AURREKARIAK

1. Auzi hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2008ko martxoaren 11ko idatziaren bidez –hurrengo eguneko sarrera erregistroa Arbitraje Batzordean–.

2. Espedientetik, honako aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

1. 2007ko irailaren 20ko eskrituren arabera –2007ko irailaren 28an inskribatua–, (ENTITATEA 1), S.A. (IFK: A ---) entitateak (ENTITATEA 2), S.A. (IFK: A----), (ENTITATEA 3), S.A. (IFK: A----) eta (ENTITATEA 4), S.A. (IFK: A----) sozietateak xurgatu zituen. Fusioaren ondorioz, (ENTITATEA 1) entitatea subrogatu egin zen xurgatutako sozietateen eskubide eta betebeharren oinordetza unibertsalaren bidez.
2. (ENTITATEA 1) entitateak 2007an Gipuzkoako Foru Aldundiari soilik ordaindu zizkion zergak; xurgatutako erakundeek Estatuko Administrazioari soilik ordaindu zizkieten.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

3. 2007ko iraileko BEZaren aitortzen (320), xurgatutako sozietateek hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko kuota gisa aitortu zituzten honako zenbateko hauek: (ENTITATEA 2), 663.396,90 euro; (ENTITATEA 3), 3.550.737,86 euro eta (ENTITATEA 4), 10.604,34 euro.
4. (ENTITATEA 1) entitateak, 2008ko urtarrilean, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu zuen 2007ko ekitaldiko BEZaren aitortzen-likidazioaren (390 eredu) ondoriozko saldo negatiboa, 5.117.334,04 eurokoa, eta Foru Aldundiak ordaindu zuen. Entitate horrek Estatuko Zerga Administrazioaren Agentzian (AEAT) aurkeztu zuen, xurgatutako entitateen izenean, 2007ko azken hilari zegokion aitortzena, ordaintzeke zeuden saldoak itzultzeko eskatuz.
5. 2008ko azaroan, AEATen Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Enpresa Handiak Kudeatzeko Unitateak behin behineko likidazioak eman zituen (ENTITATEA 4) eta (ENTITATEA 3) entitateek eskatutako itzulketa osorik ukatzeko. (ENTITATEA 2) entitateari dagokionez, AEATEk zati batean ukatu zuen –84.505,82 euro–, eta 578.891,08 euro itzuli zizkion (2006tik zetorren saldoa).
6. Likidazio horiek berraztertze errekurtsoarekin errekurritu ziren eta horiek ezesteko ebazpenak Euskadiko eskualdeko auzitegi ekonomiko-administratiboan, eta horrek, 2010eko urtarrilaren 21eko ebazpenen bidez, erabaki zuen ebazpen horien izapidetzea etetea, auzi hau ebazten zen arte.
7. 2008ko azaroaren 12an, (ENTITATEA 1) entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan idatzi bat aurkeztu zuen eskatuz 2007ko ekitaldiko urteko laburpenaren aitortzen-likidazioa (390 eredu) zuzentzeko –2008ko urtarrilean aurkeztu zuen–. Zuzenketa hori zen hasieran eskatu zuen itzulketaren zenbatekoari (5.117.334,04 euro) xurgatutako entitateek itzultzeke zeuzkaten saldoak gehitzea (ikus 3. paragrafoa); alegia, eskatzea 4.224.739,10 euro gehiago itzultzeko, guztira, 9.342.073,14 euro. Azaroaren 20an, (ENTITATEA 1) entitateak Foru Ogasunari helarazi zizkion AEATEk egindako behin-behineko likidazioak (ikus 5. paragrafoa) eta adierazi,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

horien ondorioz, itzultzeko eskatzen zuen zenbatekoa 3.645.848,02 eurora murriztu zuela.

8. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak, 2008ko azaroaren 25eko erabakiaren bidez, eskatutako zenbateko gehigarri horren itzulketa ukatu zuen. Erabaki horren aurkako berraztertze errekurtsoa ezetsi egin zen eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zen Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean; organo horrek eten egin zuen prozeduraren izapidetzea, Arbitraje Batzordeak auzia ebazten zuen arte.

3. Auzia planteatzeko idatzian, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen dio Arbitraje Batzordeari aitortzeko Estatuko Administrazioak 3.645.848,02 euroko saldo negatiboaren itzulketa egiteko duen eskumena; zenbateko hori (ENTITATEA 1) entitateak xurgatutako entitateek zerga hori Estatuko Administrazioari soilik ordaintzen zioten aldietan aurkeztutako aitorpenei zegokien. Halaber, eskatzen du entitate interesdunak eskatutako zenbatekoa itzuli izanaren ondoriozko egoki diren interesak itzultzeko, eta hori ebazpena gauzatzeko baldintzetan bildu beharko litzatekeela.

4. AEATEk alegazioak egin zituen, 2008ko maiatzaren 12ko idatziaren bidez; maiatzaren 14an eman zitzaion sarrera idatzi horri Arbitraje Batzordean. Idatzi horretan, AEATEk organo honi honako hau eskatzen zion:

- Erabakitzea auzia guztiz ez onartzea, auzitan jartzen den eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiak beren gain hartu duelako jada, eskatutako itzulketa egin baitu.
- Subsidiarioki, hondoko auziari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren uzia ezestea eta BEZaren itzulketa egiteko eskuduntzat jotzea.
- Subsidiarioki, desegokitzat jotzea Gipuzkoako Foru Aldundiak berandutza interesen inguruan egindako erreklamazioa.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

5. Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari nahiz AEATi helarazi ondoren, berriz ere alegazioak aurkeztu zituzten, 2011ko maiatzaren 3ko idatzi banaren bidez; biei ere hurrengo egunean eman zitzaien sarrera. Bestalde, (ENTITATEA 1) entitateak alegazioak egin zituen 2011ko ekainaren 3ko idatziaren bidez; Arbitraje Batzordean 2011ko ekainaren 6an eman zitzaion sarrera.

Foru Aldundiak planteamendu idatzian aurkeztutako eskaera berresten du.

Laburbilduz, zergadunak eskatzen du Zerga Agentziari aitortzeko xurgatutako sozietateek 2007ko ekitaldian sortutako BEZaren saldoa itzultzeko eskumena eta bereziki: erabakitzea, lehenengo, Gipuzkoako Foru Aldundiari itzultzea 3.645.848,02 euroak –foru ogasun horrek aurreratu zituen–, bai eta zergadunari itzulketa egin zionetik (2008ko abenduaren 12a) errenboltsoa egiten den arte egoki diren berandutza interesak ere ordaintzea foru aldundiari; eta, bigarren, erabakitzea zergadunari ordaintzeko 2008ko uztailaren 31tik Foru Aldundiarengandik BEZaren kuota horiek jaso zituen arte legearen arabera egoki diren berandutza interesak, eta, horretarako, ebazpena gauzatzeko baldintzak ezartzeko, interes horiek benetan itzultzen direla ziurtatzeko.

AEATen idatziaren Zuzenbideko Bigarren Oinarrian adierazten da Auzitegi Gorenak, 2010eko ekainaren 9an [sic; egun zuzena 10a da] eta 17an auzi honen antzeko kasuen inguruan emandako epaietan ezarri duela BEZa sortu zen aldian eskuduna zen administrazioari eskatu behar diola entitateak BEZaren saldoa itzultzeko. Jarraian, epai horretan tesi hori garatu eta oinarritzen duten paragrafoak aipatzen ditu.

AEATen idatziaren Zuzenbideko Hirugarren Oinarriak, honako hau dio: Bistakoa denez Auzitegi Gorenak aipatutako epaietan ezarritako doktrina aztertzen ari garen kasuari ere aplikatu dakiokeela, **AEATEK 2009ko maiatzaren 12an egindako alegazioak berresten ditu, BEZaren saldoak administrazio batetik bestera eramateko kasuan aplikatu beharreko irizpidearen salbuespenarekin** (zuzenbideko hirugarren oinarria), Auzitegi Gorenaren doktrina horren arabera (letra lodiak jatorrizko testuan ageri dira). Adierazi behar da idatzian ez dela *petitum* formalik egiten.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Auzi honen xedea da zehaztea (ENTITATEA 1) entitateak xurgatutako entitateek – (ENTITATEA 2), (ENTITATEA 3) eta (ENTITATEA 4)– aurkeztutako 2007ko ekitaldiko BEZaren aitortzen ondoriozko saldo negatiboa –hurrenez hurrez, 84.505,82 euro, 3.550.737,86 euro eta 10.604,34 euro, eta, guztira 3.645.848,02 euro– itzultzeko administrazio eskuduna Estatuko administrazioa edo Gipuzkoako Foru Aldundia den.

2. Auziaren xede horren inguruko erabakia da hondoko kontua eta auzi horren inguruan emandako jurisprudentzia doktrinak ebatziko du; doktrina hori, funtsean, AEATEk 2011ko maiatzaren 3ko bigarren alegazio idatzian aipatutako epaiak dira, hain zuzen ere, 2010eko ekainaren 10ekoa –378/2009 errekurtsua– eta 2010eko ekainaren 17koa –529/2009 errekurtsua–; epai horiek Arbitraje Batzordeak honen antzeko kasuetan hartutako tesia babesten dute, AEATEk berak aitortzen duen moduan. Doktrina horrek laburtzen du, Ekonomia Itunaren arabera, ezin dela onartu BEZaren saldoak administrazio batetik bestera eramaterik eta, ondorioz, itzulketa horiek egitea zenbateko horiek sortu zirenean zerga ordainaraztea zegokion administrazioaren eskumena dela. Kasu honetan, administrazio hori Estatuko administrazioa zenez, auzi honetan planteatutako hondoko kontuari dagokionez, auzitan jartzen den zenbatekoa itzultzeko eskuduntzat jo behar dugu. Konponbide hori onartu du AEATEk aipatutako idatzian.

3. Hala eta guztiz ere, AEATEk 2009ko maiatzaren 12ko alegazio idatzian planteatutako hasierako auzia (Zuzenbideko Bigarren Oinarria) oraindik ere hor dago; 2011ko maiatzaren 2ko idatzian berresten du, aurrekarien 5. atalean errepikatuta. Auzi hori da gatazka guztiz ez onargarriztat jotzea Arbitraje Batzordeak eskumenik ez duelako.

AEATEk adierazten du Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuela eskatutako itzulketa burutzea 2008ko abenduaren 4ko erabakiaren bidez eta, ondorioz, itzulketa materialki burutu zuela. AEATEk argudiatzen du BEZaren legerian ez dagoela manu bakar bat baimentzen duenik zergadunari BEZaren likidazio mekanikaren ondoriozko itzulketa bat (edo sarrera okerren itzulketa bat) egiterik, Zerga Administrazioak juridikoki desegokitzat jotzen duenean.

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

Itzulketa hori eragotziko luke zerga kredituen xedaezintasunak, beraz, a sensu contrario, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardunerako legezko justifikazio bakarra da itzulketa egiteko eskumena onartzea, eta badirudi hori onartzen duela Foru Aldundiak berak, 2008ko abenduaren 4an berraztertzeo errekurtsioa ebazteko emandako erabakian adierazten baitu, *“BEZaren sistema komunaren neutraltasun printzipioa zaintzeko, eskatutako itzulketa egiten duela”*.

AEATEk gaineratzen du, Foru Aldundiak bere jarduna ezin duela zergadunaren eskubideak zaintzean babestu, administrazio biak (Estatukoa eta Foru Aldundiarena) eskumenik gabeko gisa aitortzearen ondorioz eragin lekizkiokeen kaltea saihesteko, ordenamenduan aurreikusten baita zergadunak berak Arbitraje Batzordean eskumeneko auzi negatiboa eskatzeko aukera. AEATEk Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren –2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua– 13.3 artikuluan aurreikusitako gatazka automatikoki aurkeztuari egiten dio erreferentzia.

AEATEk ondorioztatzen du Foru Aldundiak sozietate xurgatuek sortutako BEZaren saldoei dagokien zenbatekoa itzultzeko erabakia ez datorrela bat eskumenik gabeko gisa aitortzearekin eta, ondorioz, eraginkortasuna kentzen diola eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduna ez dela bateragarria auzi hau planteatzearekin. Azkenik, gaineratzen du planteamendu horrek suposatzen duela bere egintzen aurka joatea, Foru Aldundiak eskumen hori bere gain hartua baitzuen.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak AEATEn argudioei aurka egiten die 2011ko maiatzaren 3ko idatzian, honako arrazonomendu hauekin:

- 2008ko abenduaren 4ko erabakiak ezetsi egiten du zergadunak Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertzeo errekurtsioa. Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren erabaki horrek ezezkoa ematen zion zergadunak xurgatutako sozietateei konpentsatzea zegozkien zenbatekoen ondoriozko BEZaren itzulketa osagarriko eskaerari. Ezeste horren funtsa da Foru Ogasunak ez duela itzulketa hori egiteko eskumenik, Ekonomia Itunaren arauen arabera. Ondorioz, erabaki horrek ez du

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

suposatzen Gipuzkoako Foru Aldundiak itzulketarako eskumena bere gain hartzen duenik, aurkakoa baizik.

- Berraztertze errekurtoa ezetsi arren, erabaki horrek itzulketa egiteko agindu zuen, salbuespeneko eta urgentziako irizpideen arabera, BEZaren sistema komunaren neutraltasun printzipioa zaintzeko. Itzulketaren urgentzia justifikatzen du zergadunaren finantza egoerak –berraztertze errekurtoaren espediente jakinarazi zen– eta itzulketaren zenbatekoa handia izateak eta Arbitraje Batzordearen prozedura luzea izateko aukerak. Neutraltasun printzipioari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia argudiatzen du; horren arabera, jasandako BEZaren kenkariak berehalakoa izan behar du eta alor horretan tratu desberdintasuna baztertu, eragiketa berak egiten dituzten eragileen artean, estatu bakoitzeko legeriak ezin duelarik horretarako oztopo izan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du itzulketa hori behin-behinekoa zela, Arbitraje Batzordeak edota beste instantzia batzuek erabakia eman arte. Foru Aldundiak, horri dagokionez, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.2 artikulua aipatzen du; honako hau dio:

“Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen data atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako.”
- Gipuzkoako Foru Aldundiak argudiatzen du AEATEk 2009ko maiatzaren 12ko alegazio idatzian (22. or.) aitortzen duela onartu zuela xurgatutako entitateetarako batek, (ENTITATEA 2) entitateak hain zuzen, 2006ko ekitalditik konpentsatzeko zeukan zenbateko baten itzulketa (2. aurrekaria, 5. zenbakia).

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

- Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat argudio ematen ditu itzulketa justifikatzeko eta azpimarratzen du zergadunaren egoera salbuespenekoa zela eta itzulketa horrek ez duela eragiten itzulketa hori egiteko eskumena Estatuko administrazioari dagokionaren inguruko tesiari uko egiten dionik.

5. AEATen tesia da xurgatutako sozietateen saldoen itzulketa egin duenez, Foru Aldundiak horretarako eskumena onartzen duela eta, ondorioz, desagertu egiten dela gatazka eta, bide batez, Arbitraje Batzordeak hori ebazteko duen eskumena.

Baina gu ez gatoz bat tesi horrekin. Kontua ez da zehaztea Foru Aldundia egoki jardun zen ala ez itzulketa egiterakoan, baizik itzulketa horrek suposatzen ote zuen hori egiteko eskumena onartzea Ekonomia Itunak ezarritako BEZa ordainarazteko eskumenen banaketaren esparruan. Ezarrita geratu da Zuzenbideko Bigarren Oinarrian kasu honetan eskumena Estatuko administrazioak duela. Zerga ordainarazteko eskumena itzulketa egoki den ala zehaztearen aurrekoa da, eta administrazio eskudunari dagokio hori zehaztea ere. Ondorioz, eskumenak zehazteko, ez du garrantzirik BEZaren araudiaren arabera itzulketa egoki izateak ala ez izateak. Gainerakoan, administrazio bietariko batek ere ez du zalantzan jarri egokitasun hori, nahiz eta eskuduna denak hala egin ahal izango duen.

Auzia horrela planteatuta, ez dugu zalantzarik Gipuzkoako Foru Aldundiak itzulketa egiteak ez duela eragiten horretarako eskumena onartzerik edo, bestela esanda, uko egiten dionik eskumen horri eta Estatuaren administrazioari esleitzeko jarrerari.

Gipuzkoako Foru Ogasunaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren erabakia argia da, mantentzen du saldoak ez direla administrazio batetik bestera eraman behar eta, ondorioz, Estatuaren administrazioarena dela eskumena; hori hartzen du oinarri itzulketa eskaeraren ezespenaren aurkako berraztertze errekurtsoa ezesteko. Argi dago baita ere itzulketa eskumenaren inguruko jarrera hori mantendu "arren" egiten dela. Ondorioz, itzulketa egiteko eskumenik ez izatearen berriazko baieztapen argiaren aurrean, ezin da ondorioztatu horrek jarrera horri uko egitea suposatzen duenik.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa-berregituratze eragiketak

Beste kontu bat da –eskumenaren ingurukoa nahiz itzulketaren egokitasunari dagokiona– Gipuzkoako Foru Aldundiak itzulketa hori “behin-behinekoz” egin zezakeen, Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurretik. Kontu hori zergadunari egindako ordainketaren kalifikazioarekin batera doa. Ordainketa horren benetako izaera ez da BEZaren itzulketa, hori burutu zuen administrazioak ukatzen dituen zerga kudeaketako eskumenak baliatutako soilik egin ahalko bailitzateke. Izaera hori diru-laguntza edo laguntza baten antzekoa da; baina hori eta horren erregimen juridikoa ondo zehaztea ez dagokio Arbitraje Batzordeari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren eta gastu publikoaren araudiaren arabera ebatzi beharko bailitzateke.

Guk defendatzen dugun tesia ere AEATen aldekoa da, Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Enpresa Handiak Kudeatzeko Unitateak 2008ko azaroaren 14ko behin-behineko likidazioaren bidez erabaki zuen (AEATen espedientearen 230. or. eta hurrengoak) (ENTITATEA 2) entitateari 578.891,08 euro itzultzea, eta arrazoi horrengatik ere ezin da ondorioztatu AEATEk eskumen hori bere gain hartu zuenik. Hala eta guztiz ere, ohartu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aurkako tesia defendatzeak ez duela inola ere fede onik adierazten.

Aurreko arrazoi horiek oinarri hartuta, baztertu egiten dugu AEATEk gatazka ezin onartu denaren inguruan aurkeztutako alegazioa, beraz, bidea libre geratzen da ebazpena Zuzenbideko Bigarren Oinarrian adierazitakoaren arabera ebazteko.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gatazka planteatzeko idatzian, eskatzen du entitate interesdunak eskatutako zenbatekoa itzuli izanaren ondorioz egoki diren interesak itzultzeko, eta hori ebazpena gauzatzeko baldintzetan bildu beharko litzatekeela.

AEATEk, 2009ko maiatzaren 12ko alegazio idatzian, baieztatzen du (Zuzenbideko Berrogeita Hamargarren Oinarrian), administrazioen arteko interesen inguruko erreklamazio bat denez, 2003ko azaroaren 26ko Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorraren 24. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar zaiola (gaztelaniazko jatorrizkoa):

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa-berregituratze eragiketak

"Si la Administración no pagara al acreedor de la Hacienda Pública estatal dentro de los tres meses siguientes al día de notificación de la resolución judicial o del reconocimiento de la obligación, habrá de abonarle el interés señalado en el artículo 17 apartado 2 de esta ley, sobre la cantidad debida, desde que el acreedor, una vez transcurrido dicho plazo, reclame por escrito el cumplimiento de la obligación.

En materia tributaria, de contratación administrativa y de expropiación forzosa se aplicará lo dispuesto en su legislación específica".

AEATEk adierazten du, berak inolako betebeharririk aitortu ez duenez, ez dela egoki berandutza salatzea eta ez dela egoki berandutza interesak likidatzea ere.

2011ko maiatzaren 3ko alegazio idatzian, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzuten du Aurrekontuen Legearen artikulua hori ez dela aplikatu behar, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.2 artikulua baizik; honako hau dio:

"Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako."

Gipuzkoako Foru Aldundiak baieztatzen du manu honek aipatzen dituen konpentsazioen artean sartu behar dela nahitaez berandutza interesak ordaintzea, administrazioen batek itzulketa egin badu eta Arbitraje Batzordeak azkenean erabakitzen badu beste administrazioa dela eskuduna. Berandutza interesak konpentsatu egin behar dira gatazkan dauden administrazioen ondare egoera guztiz lehengoratzeko, bestela gertatuko liratekeen bidegabeko aberasteak saihestuta.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak BEZari buruzko Legearen 115. artikulua argudiatzen du, xedatzen duena aitorten-likidazioa aurkezteko aurreikusitako epearen ondorengo sei hilabeteetan ez bada agindu itzulketa ordaintzeko, zerga administrazioari egotz dakioken arrazoiren batengatik, itzultzeko dagoen zenbatekoari berandutza interesak aplikatuko zaizkiola, epe hori amaitzen denetik ordainketa agintzen den arte, zergadunak erreklamatzeko beharrik gabe. Foru Aldundiaren ustez, itzulketa egiteko eskumena Estatuko administrazioak duenez, administrazio horrek egin behar zion itzulketa zergadunari, berandutza interesekin batera.

Bestalde, (ENTITATEA 1) entitateak, 2011ko ekainaren 3an, eskatzen dio Arbitraje Batzordeari honako erabaki hauek hartzeko interesen inguruan (5. aurrekaria):

- Gipuzkoako Foru Aldundiari itzultzea zenbateko hori egin zuenetik (2008ko abenduaren 12a) itzulketa benetan egin den arteko berandutza interesak;
- Entitateari 2008ko uztailaren 31tik Foru aldundiak auzitan jarritako saldoen itzulketa jaso zuen arteko interesak itzultzea –ordaintze gisa ulertu behar da–.

7. Arbitraje Batzordearen Araudiaren 16.5.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, gatazkaren ebazpenean “ebazpena betearazteko formula” jaso behar da. Arbitraje Batzordearen ustez, manu horren aginduz, bere ebazpenek gatazkaren auzi nagusiaren inguruko epai abstraktua eman beharrean, kontu horren gaineko erabakiaren ondoriozko finantza transferentziak zehaztu behar dituzte, baldin badaude; Azkenean, Arbitraje Batzordeak auzia ebazten den arte eskumena baliatu duen zerga administrazioari eskumena ukatzen badio egin beharreko “tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak” – Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.2 artikulua aipatutakoak– arestian aipatutako konpentsazioen kasu berezi bat dira. Manu hori ezin da aplikatu kasu honetan.

AEATEk (ENTITATEA 1) entitateak xurgatutako entitateek 2007ko ekitaldiko BEZaren saldoen itzulketa egiteko eskumena duela aitortzearen ondorio zuzena da administrazio hori izatea itzulketa horren finantza karga bere gain hartu behar duena. Karga horren zenbatekoan sartzen dira, noski, nagusia (3.645.848,02 euro) nahiz BEZari buruzko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

Legearen 115. artikuluan ezarritako berandutza interesak. Interes horiek zehaztea (alegia, tipoa eta sortzapen aldia) ez dagokio Arbitraje Batzordeari, ordaintzera behartuta dagoen administrazioari baizik, kasu honetan, AEATi.

AEATen aurrean, itzulketarako eskubidearen titularra zergaduna da eta horrek, Auzitegi Gorenak Zuzenbideko Bigarren Oinarrian aipatutako jurisprudentzian ezarritakoaren arabera, Estatuko administrazioarengana jo dezake ordaintzeke dauden saldoak eta horien interesak eskuratzeko. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskubidea izango du zergadunari eskatzeko bere garaian aurreratu zion saldoa itzultzeko. Hala eta guztiz ere, errazagoa izango litzateke AEATEk zuzenean zenbateko hori Foru Ogasunari transferitzea, administrazio biak ados jarri ondoren.

Aldiz, ez da egoki itzulketarik zergadunari egindako aurrerakinagatik berandutza interesak AEATEk zuzenean Foru Aldundiari ordaintzerik, Zuzenbideko Bosgarren Oinarrian adierazi dugun moduan, zergadunari egindako ordainketak ez zuelako itzulketa izaerarik; hala izango balitz, ordainketa egin izanak interesen sortzapena etengo zuen. AEATEk Gipuzkoako Foru Ogasunari berandutza interesak ordaintzeko oinarria, beraz, ezin du BEZari buruzko Legearen 115. artikulua izan.

Aurrekoari jarraiki, Foru Aldundiari interesak ordaintzeko betebeharra zergadunak izango du, hura izan baita aurrerakinaren onuraduna. Foru Ogasunari dagokio interes horren sortzapena eta, sortu bada, zenbatekoa zehaztea, bere garaian zergadunari egindako ordainketaren izaeraren arabera aplikatu beharreko legeriaren arabera.

Ondorioz, egoki da aitortzea ebazpen hau betez, AEATEk zergadunari ordainduko dizkiola BEZaren araudiaren arabera egoki diren berandutza interesak. Itzulketaren zenbateko nagusiari dagokionez, administrazio interesdunek adostu dezakete AEATEk zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari transferitzea.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2009	R21/2011	2011/09/27	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Enpresa- berregituratze eragiketak

ERABAKI DU

Aitortzea (ENTITATEA 1) entitateak xurgatutako entitateek –(ENTITATEA 2), (ENTITATEA 2), (ENTITATEA 3) eta (ENTITATEA 4)– aurkeztutako 2007ko ekitaldiko BEZaren aitortzen ondoriozko saldo negatiboa –hurrenez hurrez, 84.505,82 euro, 3.550.737,86 euro eta 10.604,34 euro, eta, guztira 3.645.848,02 euro– itzultzeko administrazio eskuduna Estatuko administrazioa dela.

Ebazpen hau gauzatzeko, AEATEk zergadunari ordainduko dizkio BEZaren araudiaren arabera egoki diren berandutza interesak. Itzulketaren zenbateko nagusiari dagokionez, administrazio interesdunek adostu dezakete AEATEk zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari transferitzea.